

Anuntxi Arana

ANTROPOLOGOA ♦



GAIZKA IROZ

## Dantza jauziak

INOIZ Zuberoa, Nafarroa edo Lapurdiko plaza batean ikusi badituzue zahar eta gazteak borobilean dantzan, bata besteari jarraika, *Dantza jauziak* zer diren badakizue. Atseginak, errazak eta jendeekikoak dira, eta aire desberdin asko dituzte, besteak beste, Iparraldean, *Azkaindarrak*, *Milafrangarrak*, *Ostalertsak*, *Muneinak*, *Mutxikoak*... Haietan, adineko lagunei entzunda, betidanik emazteek eta gizonek parte hartzen izan dute.

Tradizio zaharreko dantza horiek indar handiz berpiztu egin dira azken 30 urte honetan, eta ez da jairik haiek gabe. Baionako bestetan euskal kutsua duten ekitaldietan ospetsuenetakoa da arratsero egiten den *Dantzazpi*, gehien bat dantza jauziei emana. Beste herri zenbaitean, urte osoan antolatzen dituzte, hilabetean behin.

Alabaina, dantza jauziak azkartu eta zabaldu diren arabera, mutxikoak deitzen hasi dira, nahiz eta, beste kultur jarduera askotan bezala, mutilak gero eta gutxiago aritzen diren eta neskak gero eta gehiago. *Mutxikoak* aire zehatz bat baizik ez da eta, gaur egunean ere, aditu gehienek *Dantza-jauziak* erabiltzen segitzen dute multzoa aipatzeko orduan. Ez dakit nori bururatu zizaion izen berria ematea, baina ez duela batere kausitu pentsa daiteke.

*Dantza jauziak azkartu eta zabaldu diren arabera, mutxikoak deitzen hasi dira, nahiz eta, beste kultur jarduera askotan bezala, mutilak gero eta gutxiago aritzen diren eta neskak gero eta gehiago*

Katu honek beste buztanik baitauka Iparraldearen auzo herri batean.

Baztanen *Mutil dantzak* esaten zaizkio mota horrelakoei eta hor ere aire desberdin eta anitz badituzte, baita *Mutxiko* deitu bat ere, Iparraldean bezala. Eta, Iparraldean ez bezala, Baztanen gizonek bakarrik zuten *Mutil dantzak* dantzatzeko eskubidea, hainbestearino non kalapitak izaten diren emazteak ausartzen direnean. Ez da oraino bi urte, Elizondoko Santio jaietan, emazteak –auzapeza buru– mutil dantzan sartu ziren; berehala gizon zenbaitek alde egin zuten haserre bizian, dantzaren izena estakuru eta ohitura defendatzeko. Bidasoako Alardeen antzeko zerbait.

Gertakari horretatik ikasi behar genuke bazterkeria giroan sortu eta elikatzen den terminologiak bazterkeria bermatzeko balia daitekeela eta, orainokoa ere gure testu inguru linguistiko-sozialean, peligr osoa izan daitekeela neutroa den *dantza jauziak* terminoa uztea eta maskulinoa den

*mutxikoak* hobestea. Ez dut ondo ulertzen zergatik baztandar batzuk tematzen diren gainditzekoa den antzinako ohitura atxikitzen; eta oraindik gutxiago ulertzen dut zergatik Iparraldean bizkarra ematen dioten beren tradizio ki izendapen sinpatikoari. ■



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

## Hazia

NEK. Lurra zulatu ondoren, bertan hazia barreiatu edo sartu. *Trans*. Transgenikoa, genetikoki eraldatutako organismoa, hau da, beste espezie baten generen bat duen organismoa. Hazi transgenikoek makina modura ulertzen dute gure gorputza. Ordenagailuen gisa moztu eta itsatsi egiten dute, modu serialean *ad infinitum* kopiatuz. Transgenikoak bizitza dakarte, *nuta vita*, alabaina gorputza makina modura ulertzen duen bizitza eraldatua. Haziak, eraldatu ez diren haziek, urteetako informazioa darumate txertatuta, informazio sintesi eta iturria dira, eta bioaniztasun kulturala eta his-

torikoa sortzen dute. Jakina denez, hazi transgenikoak hedatu ahala suntsituz doa tokian tokiko haziek urteen poderioz lortutako bioaniztasuna. *Zoe*-ren (bizitza biluzia) eta *bios*-en (bizitza kulturala) arteko desberdintasuna kontuan badugu, transgenikoek, paradoxikoki, *zoe* izaki *bios* suntsitzen dute, heriotza dakarte, *tanatos*. Heriotzaz inguratutik, beraz, pozgarria da Donostiako Kristinaeneak abiarazi duen “Haziera”. Artxibo bizia. Arrakala mikropolitiko bat. Haziak, setiatzen gaituen *tanatos*-i zuloak ereiten. ■

